

2015ean 30 urtetik beherako gazteen % 37,6k soilik dute lana Euskadin


Okupazio-tasa ia bi puntu igo da 2013tik hona, orduan izan baitzen tasarik baxuena

Maiatzaren 1ean **Lanaren Nazioarteko Eguna** ospatzen dela eta, [Gazteen Euskal Behatokia](#)k 16 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteen okupazio-tasari buruzko datu batzuk azaltzen ditu. Horretarako Euskal Estatistika Erakundeak ([Eustat](#)) emandako datuak hartuko ditu oinarri. Datuok Biztanleriaren Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestatik (BJA) datoz.


2015eko lehen hiruhilekoan 16 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteen okupazio-tasa % 37,6koa da, hau da, adin tarte horretako gazteen herenak baino gehixeagok lan ordaindua dute.

Okupazio-tasa zertxobait handiagoa da Gipuzkoan (% 38,6) eta baxuagoa Araban (% 35,2); Bizkaian Euskadiko batez bestekoaren bezalakoa da (% 37,6).


Euskadiko gazteen okupazio-tasaren bilakaera aztertuz gero, egiaztatzen da 2009tik 2013ra izandako lan-suntsiketa, bai eta 2014an okupazioak igoera txikia izan zuela ere.



Lurralde historikoetan okupazio-tasak azken hamar urteotan izandako bilakaerak zera adierazten du, lan-suntsiketa handiagoa izan dela Araban: lurralde horrek gazteen okupazio-tasarik handiena izan zuen 2005ean (% 59,1) eta 2015eko lehen hiruhilekoan, aldiz, baxuena (% 35,2).




Bestalde, **sexuaren araberako bilakaerari** erreparatzen badiogu, ikus dezakegu 2009ra arte gizon gazteek emakume gazteek baino okupazio-tasa altuagoak zituztela, baina krisialdiak ekarritako lan-suntsiketak eragin handiagoa izan duela gizon gazteengan eta ordutik hona enplegu-tasa baxuagoak dituztela. Dena dela, aipatu behar da 2014tik aurrera gizon gazteen okupazio portzentajeak pixka bat handitu direla eta 2015eko lehen hiruhilekoan gizon eta emakume gazteen zifrak antzekoak direla.



Azkenik, **Euskadiko gazteen okupazio-tasa Espainiako gazteenarekin alderatzen badugu** ikus dezakegu Euskadin 30 urtetik beherako gazteen artean enplegua dutenen portzentajea (% 37,6) Espaina osoari dagokiona baino handiagoa dela (% 35,5, 2014ko azken hiru hilekoan, hori baita eskuragarri dagoen azken datua).

Eta Euskadin ez bezala, Espainian lanean dauden gizon gazteen portzentajea (% 36,4) emakume gazteena (% 34,6) baino handiagoa da.



Euskadiko gazteei buruzko datuak [Gazteen Euskal Behatokiaren estatistiketan](#) ere kontsulta daitezke, Lana ataleko “Jarduera, Okupazioa eta Langabezia” izeneko azpiatalean, zehazki.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

